

2211/2025 EBAZPENA, abuztuaren 28koa, Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Bilbo-Basurtuko ESiko Ospitaleko Farmaziako atal sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

AURREKARIAK

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearen maiatzaren 23koa 1176/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Bilbo-Basurtuko ESiko Ospitaleko Farmaziako atal sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko ekainaren 13ko EHAA 111 zk. eta 2025eko ekainaren 23ko BOE 150 zk.).

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko uztailaren 14an amaitu zen.

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearen uztailaren 23koa 1926/2025 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoiak adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ospitaleko Farmaziako atal sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiarri, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bilbon, 2025eko abuztuaren 28a.

Bilbo-Basurtuko zuzendari gerentea
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO



ZUZENDARI GERENTE
DIRECTOR GERENTE
Izpt/Fdo.: Jesús Larrañaga Garitano

BILBO-BASURTO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO



I. ERANSKINA

**BILBO-BASURTUKO ESIKO OSPITALEKO FARMAZIAKO ATAL SANITARIOKO BURUA
IZENeko LANPOSTUA**

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Elena Fernández Díaz andrea

Baztertuak:

- Inor ez

II. ERANSKINA

BILBO BASURTUKO ESIKO OSPITALEKO FARMAZIAKO ATAL SANITARIOKO BURUA IZENeko LANPOSTUA BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua

Titularra: Alejandra Gil Molet and. (Bilbo-Basurtu ESIko zuzendari medikoa)

Ordezkoa: Juan José Timiraos Fernandez jn. (Araba ESIko zuzendari medikoa)

Lehenengo kidea:

Titularra: Olga Merino Ochoa and. (Bilbo-Basurtu ESIko zuzendariorde medikoa)

Ordezkoa: Isabel Camargo Ibargarai and. (Bilbo-Basurtu ESIko zuzendariorde medikoa)

Bigarren kidea:

**Titularra: Ana Aguirrezabal Arredondo and. (Bilbo-Basurtu ESIko Farmaziako
zerbitziburua)**

Ordezkoa: Carlos Martinez Martinez jn. (Araba ESIko Ospitaleko Farmaziako zerbitziburua)

Hirugarren kidea:

**Titularra: Monike de Miguel Cascon and. (Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta ESIko
Farmaziako zerbitziburua)**

Ordezkoa: Olatz Ibarra Barrueta and. (Barrualde-Galdakao ESIko Farmaziako zerbitziburua)

Laugarren kidea (IVAPek proposatua):

Titularra: Ana María de Juan Arroyo and. (Uribe ESIko Farmaziako atalburua)

Ordezkoa: María Ángeles Gil Lemus and. (Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Farmaziako
atalburua)

Idazkaria:

Titularra: Maite Yeregui Huarte and. (Bilbo-Basurtu ESIko langileen zuzendariordea)

Ordezkoa: Maitane Arrizabalaga Kaltzakorta and. (Barrualde-Galdakao ESIko langileen
zuzendariordea)